

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ekialdea

DATA: 2019/11/12

Saila	Laburpena	Erantzuna
Obrak	Barakaldo kaleko 4 zenbakiko bizilagun batek salatu du espaloia ez dagoela ondo. Uste du egin diren lanak ez direla nahikoa eta eskatu du espaloi berria eta zabalagoa egitea.	Balorazio bate egin da eta obra gauzatzea aurrekontu-eskuragarritasunaren mende egongo da.
Obrak	Pasabide goratu bat eraikitzea eskatu du Barakaldo kaleko 4 zenbakiaren parean.	Lan hori "Pasabide goratuak, 2019" proiektuarekin egin da.
Zerbitzuak	Adierazi du Barakaldo kaleko 4 zenbakiko komunitateko ura mozteko giltza kalean dagoela, eta azaldu du apurtzeko zorian dagoela.	Abisua eman zitzaion GIPUZKOAKO URAK entitateari konpon zezan.
Obrak/ Udaltzaingoa	Auzokide batek eskatu du zebra-bide bat sortzeko Urkizu 34an.	Udaltzaingoa aztertu du, eta ez da beharrezkotzat jotzen, badirelako pasabideak handik gertu. Zebra-bide bat dago 30 zenbakiaren parean, hortaz, ez da komenigarritzat jotzen eskatutako zebra-bidea egitea.
Zerbitzuak	Salatu du Iparragirre kaleko 5 eta 11 zenbakien arteko horma hondatuta eta likitsez betea dagoela.	Horma 208ko azken hiruhilekoan garbitu zen, baina oso leku añubea eta hezea izanik, eta horma oso porotsua, likitsa ohi baino gehiago hedatzen da.
Zerbitzuak	Auzokide bat kexu da Iparragirre aldean dauden arbolek eltxoak erakartzen dituztelako.	Lan-agindu hau alde aurretik sortu zen, eta gune horren ikuskaritzaren zain dago, egoeraren arabera, erabaki bat hartzeko. Eltxoak egoteak ez du justifikatzen arbolak erretiratzea.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ekialdea

DATA: 2019/11/12

Saila	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Galdetu du ea alternatibarik dagoen LIDL-en itxierari soluzioa emateko.	Enpresa komertzial bat lanean ari da eta elkarrizketak egiten ari da lokalaren jabeekin, bertan instalatzeko. Halaber, beste bi enpresa gestioak egiten ari dira kale horretan finkatzeko asmoz.
Obrak	Barrena 23ko bizilagun batek salatu du arrakala handi bat dagoela lurrian, eraikinaren ostean.	Inguru hori urbanizatzea aurreikusten da.
Zerbitzuak	Salatu du Barrena kalea zikin eta abandonatuta dagoela eta zabor-poltsaz beteta.	Zaborren sistema berriak (txartelekina) zikinkeria eragin zuen edukiontzien irletan; gaur egun, sistema hori ez dagoenez, konpondu egin da arazoa. Guztiarekin ere, zabor-poltsak edukiontzietatik kanpo lagatzea gizabide kontu bat da.
Hirigintza	Kexu da Barrena aldean lokal pila bat daudela hutsik eta zikin daudela. Esan du Larrañaga y Elorza eta Telefonicarene eraikinak oso-oso zikin daudela.	Lokalen jabeek dagokie behar bezala mantentzea. Kasu berezietan (segurtasun edo osasungarritasun eta apaingarritasun baldintzei eragiten badiete), Udalak esku-hartu dezake jabeek beren obligazioak betetzeko eskatuz edo subsidiaroki betearaziz. Gertatzen dena da Barrenan hutsik dauden lokalen kopurua oso handia dela eta jabeek ez dituztela behar bezala mantentzen. Aipatutako eraikinei dagokienez, Telefonikarena antzera dago, eta <i>Larrañaga y Elorza</i> -ren jabeak errekerimendu bat baino gehiago egin zaio (teilatuen garbiketarik eta fatxadako gabeziak ez konpontzeagatik).

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ekialdea

DATA: 2019/11/12

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Barrena kaleko bizilagun batek salatu du inguru horretako kale-garbitzaileak ez duela kalea ondo garbitzen.	Mankomunitateak aztertu egin du alde horretako kale-garbitzailearen lana eta ez du antzeman arazorik.
Obrak	Galdetu du ea noiz hasi behar diren Azitain eta Maltzaga arteko bidegorriaren obrak.	Obrak 2019ko urrian hasi ziren.
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Barrena kaleko 30 zenbakiko bizilagun batek salatu du zenbat txakur-kaka eta txiza dagoen espaloietan. Galdetu du ea zer isun jartzen diren.	Animalien edo kaleko garbitasunaren ordenantzak betetzen ez dituzten pertsonak antzematen direnean, salaketa jartzen zaie.
Udaltzaingoa	Barrena inguruko segurtasun eza salatu du. Esan du beldurra ematen duela.	Barrena inguruko zaintza herriko beste toki batzuetan bezala egiten du Udaltzaingoa. Datuek ez dute adierazten toki hori ez denik bereziki segurua.
Zerbitzuak	Kexu da Lantegi Eskolaren atzealdeak obra-hondakindegia bat dirudielako, eta, dioenez, pneumatikoz beteta dago.	Abisua pasatu zitzaion Mankomunitateari pneumatikoak ken zitzaizkien.
Hirigintza	Galdetu du ea planik dagoen herriaren ekialdea urbanizatzeko.	Murrategiko Birgaitze Plan Berezi bat izapidetu behar da. Lan egiten ari dira beharrezkoa den finantzazioa lortzeko, trenbide gaina estaltzeko proiektua gauzatzeko xedearekin, hala, Azitain erdigunearekin lotuko duen pasealeku bat eginez. Halaber, eskala txikiko hobekuntza-proiektuak aurrera eramango dira, progresiboki hiri-ingurunearen kalitatea hobetzeko.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ekialdea

DATA: 2019/11/12

Saila	Laburpena	Erantzuna
Hirigintza	Bizilagun batek galdetu du ea Babes Ofizialeko Etxerik eraiki behar duten Barrena aldean.	Ez dago aurreikusita epe motzera babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea. Baina handik gertu, Txontan eraikiko dituzte babes ofizialeko etxeak.
Zerbitzuak	Barrena kaleko 30 zenbakiko bizilagun batek salatu du ura sartzen dela Mazaren lokalean, 28 eta 30 zenbakien arteko igogailutik.	Kontu hori ez da udalaren erantzukizuna.
Zerbitzuak	Kexu da Barrena 28-30eko igogailuaren barruan zulo bat dagoelako Udaltzaingoak zeloarekin estali zuena.	Thyssenek arazoa konpondu zuen.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek segurtasun-arazo bat salatu du Barrena inguruan, izan ere, kotxeak kaltetu eta gurpilak zulatu egiten dira.	Barrena inguruko zaintza herriko beste toki batzuetan bezala egiten du Udaltzaingoak. Datuek ez dute erakusten toki hori segurua ez denik. Azken hilabeteetan pertsona bat identifikatu da ibilgailuetan kalteak eragiten zituen eta bi gazte hainbat ibilgailuren atzeraspiluak apurtu zituztenak, Barrenatik Saratsuegira doan bidean.
Hirigintza	Proposatu du emakidako garajeak sortzea, Barrenan hutsik dauden lokalen alternatiba gisa.	Barrena kalean hutsik dauden lokal asko daude, baina bizitegi-eraikinen azpian kokatutakoek ez dute behar besteko tamainarik emakidako garajeen udal proiektu bati ekiteko. Badira partikularrenak diren pabiloi hutsak ere. Jarduera ekonomikoen barruan daude sailkatuta eta haien kostua oso altua da, beraz, eragiketa ez da bideragarria. Nolanahi ere, Udalak jarraitzen du irtenbideak aztertzen aparkalekuen arazoa konpontzeko.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ekialdea

DATA: 2019/11/12

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Galdetu du ea paperontzi gehiago jar daitezkeen Barrena kaleko zenbaki bakoitietan.	Otsailean edukiontzi berri bat jarri zen.
Zerbitzuak	Eskatu du berrikustea Azitaingo tren-geralekuan dauden kirol-makinak. Dioenez, bi ez daude ondo jarrita.	Udal Lantaldeak finkatu eta bermatu ditu.
Alkatetza	Barrena kaleko bizilagun batek dio komertzioei diruz lagundu beharko litzaiekeela Eibarko alde honetan jartzeko.	Eskabide horrek alderdi juridiko konplexuak ditu, baina aztertzen ari dira.
Obrak	Barrena kaleko 36 zenbakiko bizilagun bat kexu da aldapa handia duelako bere etxebizitzara iristeko.	Pegorara iristeko aukera berriak aztertu dira.
Obrak	Bizilagun batek salatu du Azitaingo pasarelak oso pendiz gogorra duela.	Pasarela berria jarri da.
Obrak	Bizilagun batek dio Barakaldo kaleko espaloiek leku batzuetan jaitsiera daukatela, eta gune batzuk goratu direla oinezkoentzat.	Konponbide horiek behin-behinekoak izan ziren, "Pasabide goratuak, 2019" proiektuaren obrak egin artekoak.
Zerbitzuak	Kexu da Carmen kaleko parkean dauden bankuak oso deserosoak direla. Esan du pertsona nagusiak ezin direla jaiki.	Bankuaren modeloa estandarra da eta betetzen ditu irisgarritasun-irizpideak eta ez baztertzekoak, espazio publiko urbanizatuak erabiltzeko.
Zerbitzuak	Salatu du Bidebarrieta kaleko markesina egoera txarrean dagoela.	Ikuskaritza egin ondoren, ez da gauza anomaliarik ikusten markesinan.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ekialdea

DATA: 2019/11/12

Saila	Laburpena	Erantzuna
Udaltzaingoa	Bizilagun bat kexu da, asteburuetan edo Eibarko erdigunea oinoezkoentzat zabaltzen den bakoitzean, ez dela zerbitzurik ematen Eibarko ekialdeko gunetik Donostiara joateko.	Erdigunea ixten denean Donostiarako noranzkoan doazen autobusentzako, autobusek saihesbidetik joan behar dute, eta, hortaz, Azitain aldeko geltokia kendu egiten da.
Zerbitzuak	Kexu da Fausto taberna osteko parkean dauden jardinerak ez dutelako batera lorerik.	Urtarrilean landatu ziren zuhaixka horiek.
Zerbitzuak	Barrena aldean gabonetako apaingarri gehiago eskatzen du.	Gabonetako argiak merkatarien elkarteak jartzen ditu, eta haiek dira non jarri erabakitzen dutenak. Hala ere, Gabonetako motiboen kokapena hiriko beste leku batzuetara zabaldu du Udalak.
Obrak	Iparragirre kaleko 11 zenbakiko auzokide batek galdetu du ea mantendu behar diren gaur egun kaleko 9 eta 11 zenbakien artean dauden eskailerak, eta, baita, ea mantendu behar den 5 eta 7 zenbakien artean dagoen aldapa gogorra.	Ahaleginak egin dituzte, baina ezin izan dira eskailera-mailak kendu. Malda arindu dute eta lehen zeudenak baino eskailera-maila erosoagoak jarri dira, haien artean bereiziz eta tarteko azalera lau bat sortuz.
Alkatetza	Barrena kaleko auzokide batek eskatu du erabilera ematea Telefonikako eraikinari.	Eraikina ia ez dela erabiltzen egia bada ere, gaur egun jabetza erabilera bat ematen ari zaio, konpainiako ekipo batzuekin. Arrazoi horrengatik, oraingoz, ezin zaio beste erabilerarik eman.
Udaltzaingoa	Eskatu du kontrola dadila Azitainen dagoen neguko dispositiboaren inguruko segurtasuna.	Azitaingo neguko dispositiboa Udaltzaingoa kontrolatzen du, eta bertako erabiltzaile guztien berri du.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ekialdea

DATA: 2019/11/12

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Kexu da LDL inguruan dauden amaraun eta pintada pila bat daudelako.	Jabetza pribatuen fatxadetan, jabetza da haren garbitasunaren arduraduna. Udalak ezohiko programa bat egiten du pintadak garbitzeko, eta jabeei aukera ematen die Udalari eska diezaioten fatxada garbitzeko.
Zerbitzuak	Barrena kaleko 46 zenbakiko auzokide batek eskatu du pinta daitezela Ondamendira doazen eskaileren lehen mailak.	Ez da beharrezko ikusten lan hori, eskailerak argizatuta daudelako.
Zerbitzuak	Eskatu du alda daitezela eta hobetu Azitaingo tren-geralekuaren inguruko argiak.	Herriko argiteria LED erako argien modernizazio- eta instalazio-prozesu batean. Leku horretako argiak berriztu egingo dira, halakoan modernizazioari ekiten zaionean.
Zerbitzuak	Eskatu du alda daitezela lekuz Karmen kaleko 4 eta 6 zenbaki pareko edukiontziak. Eskatu du eraman daitezela 50 metro gorago.	Mankomunitateak edukiontzien egoeraren txosten bat egin du, aztertzeko zain dagoena. Azterketa horren emaitzak dioena egingo da.
Udaltzaingoa	Auzotar batek salatu du, asteburuetan edo erdigunea oinezkoentzat zabaltzen denean, ekialde inguruko bizilagunek ez dutela autobus-zerbitzurik Azkoitira joateko.	Erdigunea ixten denean Donostiarako noranzkoan doazen autobusentzako, autobusek saihesbidetik joan behar dute, eta, hortaz, Azitain aldeko geltokia kendu egiten da
Obrak	Auzokide batek galdetu du ea zer egoeratan dagoen Amaña eta Azitain arteko hiri-bidegorria.	ETSrekin bilerak egiten jarraitzen da, proiektuan aurrera egiteko.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ekialdea

DATA: 2019/11/12

Saila	Laburpena	Erantzuna
Obrak	Auzokide batek galdetu du zeinek ordainduko lituzkeen Amaña eta Azitain arteko trenbidea estaltzeko obrak.	Udalak eta Eusko Jaurlaritzak, hitzarmen bidez.
Zerbitzuak	Ekialdeko gunean jartzen diren edukiontzia zaharkituta daudela salatu du.	Mankomunitateak edukiontzien egoeraren txosten bat egin du, aztertzeko zain dagoena. Azterketa horren emaitzak dioena egingo da.
Obrak	Kexu da Barakaldo eta Asua Erreka arteko pasadizoan jarri diren pasabideek duten altueragatik.	Horrela geratu da kalearen pendiza dela-eta.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek galdetu du ea zenbat taxi egokitu dauden Eibarren.	Une honetan desgaitasuna duten pertsonen egokitutako bi taxi daude.
Udaltzaingoa	Adierazi du Eibarren desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku gutxiago daudela tokatzen direnak baino, eta, ziurtatu du, kasu askotan, bertan aparkatzen duten ibilgailuek ez dutela txartel urdinik.	Desgaitasuna duten pertsonentzako gordetako kopuruari dagokionez, nahikoa dela irizten da. Dena den, gabezia bat antzeman edo partikular batek eskaera bat egiten duen bakoitzean, aztertu egiten da, eta beharrezkotzat jotzen bada, jarri egiten da aparkalekua. Txartelik gabe edo txartela behar ez bezala erabiltzen duten ibilgailuei dagokienez, salaketak jartzen dira eta, beharrezkoa bada, garabiarekin erretiratzen dira. Modu bidegabean erabili dela antzematen denean (erabiltzen duenak ez du desgaitasunik, desgaitua hil egin da, edo ez da txartela entregatu...), erretiratu egiten da txartela.
Udaltzaingoa	Auzokide batek galdetu du zeinek kontrolatzen duen patinete elektriko erabilera.	Herri barruko erabilera Udaltzaingoa kontrolatzen du. Aztertzen ari dira trafiko Ordenantza aldatzea patinetei

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ekialdea

DATA: 2019/11/12

Saila	Laburpena	Erantzuna
Hirigintza	Kexu da ikusten ez duten pertsonen arazoak dituztelako ekialdeko gunetik ibiltzeko.	buruzko araudi berria jasotzeko, Zirkulazioaren Araudia aldatu egin baita. Herri osoan egiten dugu lan ikusten ez duten pertsonen igarobideari lagunduko dion Araudia ezartzeko (zolaketa, seinaleak), eta ONCErekin egiten dugu lan arazoak aurkitu eta gabeziak konpontzeko.
Zerbitzuak	Murrategi kaleko auzokide bat kexu da harriak, adarrak eta sasiak jausten direlako baserrien ingurutik.	Abisua pasatu zitzaion Debemeni baserriei oharra bidal ziezaien.
Hirigintza	Eskatu du Murrategi inguruan dauden txabolak kentzeko.	Txabolak pribatuak dira. Udalak Murrategi Birgaitzeko Plan Berezi bat idatzi du, eremua berroneratzeko asmoz. Bertan aurreikusten da auzorako sarreran eta erdialdean espazio libreak sortzea, Udalak eskuratuko dituenak. Hori horrela denean, lehenengo lanetariko bat txabolak eraistea izango da.
Zerbitzuak	Auzotar batek salatu du animalia abandonatuak daudela Murrategin.	
Zerbitzuak	Barrena 14 zenbakiko auzokide batek adierazi du terraza ostean horma bat dagoela, eta bertan platano-arbolak daudela eta errekatxo bat bizilagunei afekzioak eragiten dizkiotenak.	Otsailaren 25ean horma atzetik doan ertz-erretena garbitu zen eta arazoa konpondu.
Udaltzaingoa	Bizilagun bat kexu da ekialdeko gunean geratzen den Mendarorako autobusa ez delako irisgarria. Ziurtatu du lehen 14 zenbakiaren parean	Ibilbidea egiten duten Lurraldebusen autobusek betetzen dute araudia irisgarritasunari dagokionez. Udalbuseko ordutegiei dagokienez, Teknikerretik irteten den goizeko azken

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ekialdea

DATA: 2019/11/12

Saila	Laburpena	Erantzuna
	geratzen zela. Halaber, salatu du Udalbuseko zerbitzu gutxi dagoela 14:00 eta 18:30 artean.	zerbitzua 13:50ekoa da, eta arratsaldeko lehena 17:25ean irteten da. Amañako goizeko azken irteera 14:25ean da eta arratsaldeko lehena 16:55ekoa.
Zerbitzuak	Salatu du Mutualia ondoko parkean higiene gutxi dagoela.	Abisua eman zitzaion Mankomunitateari kontuan har dezan eta desugertzailea pasa dezan, zikinkeria kentzeko.
Udaltzaingoa	Kexu da txakurrak Mutualia ondoko parkean sartzen direlako.	Antzematen denean animalia batek arazoak sortzen dituela edo ez duela betetzen animalien Ordenantza, salaketa jartzen da.
Obrak / Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da Gabilondoko espaloiak baldosak altxatuta dituelako. Galdetu du ea zementurik bota daitekeen halako arazoak saihesteko.	Balorazio bat egin da. Lana egitea, aurrekontua egotearen mende geratzen da.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da parkeko zabua, Barrena kaleko 48 eta 50 zenbakien artean kokatua, altuegia delako.	Mantentze-enpresak aztertu du aipatutako zabua eta haren altuera zuzena da.
Alkatetza	Bizilagun batek galdetu du ea larunbat gauean trena Azitainen gera litekeen.	Idatzi bat helarazi zaió Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailera, jakiteko ea eskabide horri erantzun ahal zaion.